

OARSOALDEKO EUSKARAZKO KOMUNIKABIDEEN ETORKIZUNENKON ERRONKA

Libe Ibañez. Lau Haizetara aldizkariko koordinatzailea

Lau Haizetara aldizkaria 1994ean sortu eta ordudanik etengabe aritu da euskara hutsez herriko berri ematen. Urteak joan ahala erronka ezberdinei aurre egin behar izan dio eta momentu honetan ere komunikabideen alorrean pairatzen den lehiakortasuna ikusirik, jauzi berri bat eman beharrean aurkitzen da. Oraingoan, ordea, Lau Haizetarak ez dio behar berriei bakarrik erantzungo. Euskarak punta-puntan egon beharra dauka eta, hedabideen sektorea sendotzea, hori da bailarako euskarazko aldizkari, telebista eta irratiek elkarrekin duten erronka berria.

Lau Haizetararekin batera, Lezoko Orratx! eta Pasaiaiko Branka aldizkariak; Oiartzun Irratia eta Oarso Telebista dira egun Oarsoaldean euskara hutsez aritzen diren herri komunikabideak. Hauek guztiak Ibainet informatika gunearekin batera bildu eta Oarsoaldeko Hedabideen Batzordea sortu zen 1999an, Oarsoaldeko Euskara Zerbitzuaren organigramako gune gisa. Indarrak elkartuz, garai berriei ahalik eta egokien erantzuteko helburuarekin, norabide berean lan egiteko aurrerapausoak eman ziren.

ELKARLANEAN

Lehenik eta behin, albiste batzuk nahiz eta herri jakin batekoak izan, bailara mailako interesa zutela konturatu, eta hiru aldizkariak –Lau Haizetara, Orratx! eta Branka– erreportaje eta elkarrizketa bateratuak elkarlanean egin



zituzten. Honekin batera, argazkilari berak hiru aldizkarietarako argazkiak atera, berriak bata besteari pasa...



Ordu arte ez zegoen elkarlanean aritzeko ohiturarik eta, hau izan zen, nolabait, proba modura egin zen estreinako pausu txikia.

Oarsoaldeko Hedabideen Batzordearen azken xedea eskualdea unitate bezala hartuz, euskarazko informazio sare sendo eta eraginkorra sortzea zen, horretarako lehendik zeuden egituretatik abiatuz. Hau honela izanik, jada 2000. urtean, multimedia eratzeko biderei seriozki eustea erabaki zen.

Elkarrekin, lehenengo egitekoa helburu berdineko esperentziei buruzko informazioa jasotzea izan zen. Ordurako, komunikabideen alorrean baziren etorkizuneko erronkei aurre egiteko sortu berri ziren zenbait egitasmo: Debagoienako Goiena egitasmoa, Ttipi-Ttapa, edota azkeneko sortu berria den Anboto aste-kariaren kasua, esaterako. Guztien berri izan, eta Oarsoaldeko Hedabideen Batzordean multimedia proiektua garatzeko eman beharreko pausu nagusiak argitu ziren.

Lehenengo urratsa publizitatea bateratzea izan zen. Lehen komunikabide bakoitza bere aldetik aritzen bazen ere, egitasmo berrirako pausu bezala, publizitate alorra elkartu egin zen. Komunikabideen bizi-iraupenerako funtsezkoa da publizitatea, hau baita beren diru-iturri nagusienetakoa, eta bateratzeak emaitza onak

eman zituela ikusirik, hurrengo pausua publizitatearekin batera diseinu alorra ere bertan uztartzea izango zela erabaki zen, etorkizunean eskualdeko diseinu eta publizitate agentzia sortuz. Honen ondoren, erredakzioa izango litzaiteke elkartu beharreko hurrengo alorra.

Hedabideen Batzordea bere aldetik, pausu txikiak emanez, multimedia proiektua garatzen ari bazen ere, momentu jakin batean Batzordeak jardun honetan, bai denbora aldetik eta bai kompetentzia aldetik, bere mugak zituela konturatu zen. Horrela, hedabideen alorra ahalik eta egokien antolatzeko beharrari jarraiki, Oarsoaldeko Hedabideen Batzordeak bailarako euskarazko komunikabideen inguruko plan estrategiko baten beharra azpimarratu zuen.

PLAN ESTRATEGIKOA

Ildo honetan, Oarsoaldeko Hedabideen Batzordeak hala eskatuta, eta eskualdeko lau Udalek beharrezkotzat iritzirik, Ikertalde enpresak euskarazko komunikabideen etorkizunerako plan estrategikoa egin du. Plan berriak jakinaraziko ditu etorkizunean euskarazko komunikabideek izan behar dituzten ardatz nagusiak: antolatzeko modurik egokiena, izaera juridikoa, funtzionamendua, eta honekin batera, Udalek komunikabideekiko eraman behar duten politika, besteak beste.

Ikertalde enpresak plan estrategikoa egi-terakoan urrats ezberdinak barneratu ditu. Lehenik eta behin komunikabideen sektorea-

rekin lotura duten hedabide, euskara elkarte, udal eta eragile guztiekin bildu dira. Eragile hauen ekarpenak jasotzearekin bat merkatu ikerketa bat ere egin da eta, honez gain, web orri bat bideratu dute adituek eta beste-lako eragile batzuek gaiaren inguruko iritzia eman eta ekarpenak egin ditzaten. Honekin batera, Bench marking delakoa ere abian



jarri dute, gure eskualdearentzako eredugarri izan litekeen esperientziak aztertu eta euren-gandik ikasiz.

Behin plan estrategikoa bukatuta, udal ordezkari ezberdinak bildu eta planaren barne aurkezpena egingo da. Ondoren, plan estrategikoaren gora-beherak eragile ezberdinekin adostu eta planean adierazitakoa nola gauzatu erabakiko da. Beraz, laster izango dugu oarsoaldeko euskarazko komunikabideen etorkizun hurbilaren berri.

